

# Ezpalak

JON TORNER

## Chillida Leku abenduaren 31n itxiko dutela iragarri dute

EDUARDO CHILLIDA eskultorearen familiak Chillida Leku museoa abenduaren 31n ixtea erabaki du. Laguntza publiko eta pribatu nahikoa ez lortzeaz gain, bisitari kopurua ere dezente murriztu da azken bi urteetan. Luis Chillidak adierazi duenez, langileen erregulazio espedientea tramitatzen hasi dira jada. 2000. urtean ireki zuten museoa, eta hamar urte hauetan 800.000 bisitari baino gehiago izan ditu. Aldian behin erakusketak prestatuko dituztela eta ondarea zaintzeko lanak egiten jarraituko dutela azpimarratu du Luis Chillidak. Hala ere, erakunde publikoekin negoziatzen ari direla jakinarazi du, azken orduko konponbidea topatze aldera.



DONOSTIA.ORG

## Zeintzuk dira euskal blogosferako 2010eko ekarpenik onenak?

AZKEN hiru urteetako ildoari jarraituz, euskal blogosferako 2010eko ekarpenik onenak aukeratzeko kontsulta abian da jada Teknopata.net blogean. Egitasmoak bi fase ditu: 2010eko abenduaren 19ra arte izango da zabalik proposamenak jasotzeko epea eta horretarako orria editatu behar du erabiltzaileak. Ondoren, 2011ko urtarrilaren 9ra arte zabalduko da bozkatzeko epea. (<http://onenak.teknopata.net>)

## Kulturaren Kontseiluko 32 kideak hautatu ditu Jaurlaritzak

KULTURAREN Euskal Kontseiluko 32 kideak hautatu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Tartean daude, besteak beste, Lucia Lakarra dantzaria, Miguel Zugaza Prado museoko zuzendaria, Karmele Jaio eta Luisa Etxenike idazleak, Alex de la Iglesia zinemagilea eta Patxi Salaberri euskaltzaina. Euren aurreneko egitekoa, Kulturaren Aldeko Herritartasun Kontratua lantzea izango da. Kontseiluko kide guztien zerrenda: <http://bit.ly/f7C4ow>

**Telmo Esnalek** irabazi du Lekeitioko 33. Euskal Zinema eta Bideo Bilerako sari nagusia, *Amona Putz!* filmarekin. Sormen saileko lehen saria ere film horrek jaso du. Argumentuzko lanen artean Maialen Sarasua-*ren Hemen nago* lana nabarmendu dute; dokumentalaren atalean, aldiz, lehen saria hutsik geratu da, eta Carlos Iglesiasen *Slack Line: grabitatearen erronka* lanak jaso du bigarren saria. Bestalde, Bilboko Zinebi jaialdiko sari nagusia *ex aequo* irabazi dute Jurgis Krasonsen *Norit Krupi* eta Banu Aksekiren *Thermes* filmek.

## Guregipuzkoa.net

webgunean euren argazki funtsak jarri dituzte eskuragarri Hondarribia, Zestoa eta Zaldibiko udalek, iaz Kutxak eta Aranzadik egin zuten moduan. Hondarribiko 4.978 irudi digitalizatu, Zestoako 1.205 eta Zaldibiko 1.705 igo dituzte.



GUREGIPUZKOA.NET

**Riff Truckers** talde gernikarrak eraman du Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketako sari nagusia. The Yellow Big Machine eta Moby Dick taldeei –bigarren eta hirugarren sarituak, hurrenez hurren– nagusitu zitzaizkien azaroaren 27an Bilborock-en, jendez mukuruz zegoen kontzertuan.

## ● Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldeko zuzendari ohiak **Berrian**:

«Sortu, sortu, gauza garbia da: Hizkuntza. Euskara izan zen Jarrai sortzeko lehen arrazoia. Gure lehen antzerkiak irakurriak izan ziren, 1958an, mahai luze batean eserita eta nork bere papeira irakurriz. Pentsa, 60ko buelta horretara arte ez zegoen ezer, ikastolak ere orduan sortu ziren! Donostian oso euskara gutxi egiten zen, eta gu herrietatik etorritako xeble batzuk ginen; halako lagunarte bat sortu zen, eta taldea atera zen (...) Ger-tatzen dena da exijentziak handiagoak direla. Guk edozein bazterretan egiten genuen antzerkia, ahal zen tokian. Gaur egun, beste mila gauza daude. Profesionalak diren talde horietako batzuek erdaraz prestatzen dituzte antzezlan guztiak. Hori da dirua irabazi behar dutelako, hortik bizi nahi dutelako; horretara behartuak daude, horretan sartuak daudelako.»



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)